

2017-2018 PRESTAKUNTZA PLANA

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

**“MUGETATIK HARATAGO.”
Migrazioa eta babeslekuak; harrera eta bizikidetzak.**

Modalitatea: informazio-saioa

Etapak: Etapa guztiak

Norentzat: Hezkuntza maila guztietako irakasleentzat.

Deialdiaren egilea: Prestakuntza Atala

Justifikazioa:

Hezkuntza eraldatzailearen eta herritartasun globalaren ikuspegitik abiatuta, “MUGETATIK HARATAGO” izeneko proposamenak migrazioen eta babeslekuen gaiak (zergatiak, ondorioak, migrazio fluxuak...) jorratuko ditu, baita gizarte abegikorra lortzeko egin beharreko lanak ere, kulturen arteko bizikidetzan oinarrituta.

Helburua/k:

- Migrazioen eta babeslekuen errealitatean sakondu.
- Emakumeek eta neskek jasaten duten indarkeriaren eta diskriminazioaren errealitatea zein den azalatu.
- Kulturen arteko bizikidetzaren balioa aitortu, gizarte abegikorra lortzeko.
- Hezkuntza baliabide zehatzak berrikusi ikasgelan lantzeko.

Edukiak:

- Migrazioa eta babeslekua
- Migratzaile eta errefuxiatuak diren emakume eta nesken egoera
- Kulturen arteko bizikidetzak

Metodologia:

Bi zati izanen ditu:

Lehenbiziko zatian, migrazioen, babeslekuen eta harreraren gaiei buruzko sarrera egingen da; gai hauek ikasgelan jorrazteko proposamena egingen zaie ikastetxeei.

Bigarren zatian, hezkuntza mailen araberako lantegi bat egingen da, proposaturiko hezkuntza baliabideak aplikatzeko aukera zehatzak ezagutzeko eta ikusteko. Irakasleek berek partekatu eta aberastuko dute proposamena.

MATERIAL DIDAKTIKOAK DOAN BANATUKO DIRA

Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi helbide honetara: a.urretavizcaya@alboan.org

Hizlaria(k): Ani Urretavizcaya eta Maritza Gordillo, ALBOANekoak

Arduraduna:

Ana Turumbay, Prestakuntza Programen Bulegoa
848 423250
sf.programas@educacion.navarra.es

Tokia eta datak: (saio bakarra aukeratu)

- + **IRUÑA, abenduaren 12a**, Gazteriaren Etxean. (GAZTELANIA)
- + **IRUÑA, abenduaren 13a**, Iruñeko ILZ-n (BASOKO BHIIn). (EUSKARA)
- + **TUTERA, abenduaren 14a**, Tuterako UHUNean. (GAZTELANIA)

Ordutegia: 18:00-20:00

Iraupena: 2 ordu

Plaza kopurua: 25 plaza saio bakoitzeko.

Izena emateko epea:

Izena emateko azken eguna abenduaren 10a izanen da; esteka honetan egin behar da: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

Hautaketa irizpideak:

- 1. irizpidea: Jasangarritasun Eskolen Sareko irakasleak
- 2. irizpidea: izen-emateen hurrenkera

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza jarduerekin zerikusia duten ohar zein mezu guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Irakasle bat jarduera egiteko onartu, baina ezin baldin badu egin, mezu elektronikoz jakinarazi beharko dio deialdian ageri den arduradunari, hasi baino lehen baja emateko. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapenak jasotzen duenak berdin-berdin izanen du ikasturtean prestakuntzako 35 orduak egin beharra.
- PNTEren urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izenekoa egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntzarako eskubidea izateko, jardunean egon behar dute irakasleek, eta haiei baizik ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio eta harreraren ondoriozko lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun-egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko, bertaratu beharreko saioen %85era joan beharko da, eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.